

Kooperazio kooperatiboak Mozambiken

eragindako nekazal iraultza

- 17 urte daramatzate lanean Mozambiken eta egun fundazioaren laguntza 15.000 nekazarirengana iristen da, kontuan hartuz familia bakoitzean 5 lagun direla batz bestea, 75.000 lagun orotara.
- Beñat Arzadun ingeniari oreretarra hasieratik dabil bertan lanean kooperante moduan.
- Aurten datu errekorra lortu du: Mundukidek aholkatutako teknika eta produktuen produkzioaren bitartez baserritarrek orotara lortu duten diru sarrera hamar milioi eurotik gorakoa izango da, urte osorako 15 edo 20 mila lanpostu sortzearen parekoa.
- Fundazioko patronatuko ordezkariak Mozambiken izan dira uda honetan proiektuak bisitatzen.

Hastapenak

Duela 17 urte iritsi zen lehen aldiz Mozambike iparraldeko Niassa probintziara Beñat Arzadun ingeniari oreretarra. Mundukide Fundazioaren lehen kooperanteetako zen eta argi zuen bertako bizilagunen bizi baldintzak hobetzea zela helburua: “Lehen aldiz, Marrupara (Niassa, Mozambike) iritsi nintzenean egoera gatazkatsua aurkitu nuen eta nire helburu bakarra arazorik ez izatea izan zen. Nik egin behar nuena begiak eta belarriak irekitzea, galdetzea eta ulertzen saiatzea zen. Lehenengo urte osoa pasa nuen horretan, beraingandik ikasten eta beraiek ulertzen, hain zuzen, eta nik uste dut, horri esker atera direla ondorengo proiektuak”.

Iritsi eta berehala Mundukidek errepideak eraiki zituen eta hori izugarri eskertua izan zen bertako bizilagunen artean. Hasiera batean arlo sozial zabal batean lanean hasi baziren ere berehala ohartu ziren beste



arlotan fundazioaren balio erantsia txikia zela eta horregatik, 2005ean alderdi produktiboan eta ekonomikoan zentratu ziren eta geroztik horretan jarri dute arreta.

Egungo datuak/lorpenak

Mundukide Fundazioak Mozambike iparraldeko Niassa eta Cabo Delgado probintzietan ditu proiektuak egun, eta orotara 15.000 nekazariengana iristen da beren laguntza. Kontuan hartuz familia bakoitzean 5 lagun direla batz bestea, 75.000 lagun orotara. “Aurten errekorra egin dugu, guk aholkatutako eta lagundutako teknika eta produktuen produkzioaren bidez baserritarrek orotara lortuko duten diru sarrera hamar milioi eurotik gorakoa izango baita. Hori Mozambiken urte osorako ia 15 edo 20 mila lanpostu sortzearen parekoa da. Magnitude horietan ari gara lanean eta oraindik badago zabaltzeko aukera ere” dio Arzadunek.

Mozambiketarren testigantzak

“Egia da aldaketak ez direla bat-batekoak eta gure lanari esker inor ez dela pobre izatetik aberats izatera igaro, baina askoren bizitzak hobetzen lagundu dugu” dio Mozambikeko kooperante ohi den eta egun Mundukide Fundazioak Afrikan dituen proiektuen koordinatzaileak. Eta hori nabari da Niassako nekazarien artean, esker on hitzak baitituzte fundazioarentzat eta bertako kooperanteentzat.



Marrupa distrituko laranja herriko

Xabier Chonga esaterako iaz joan zen lehen aldiz Mundukideko egoitzara, bertan, idazkariariak eman zizkion produkzio aholkuak jarraitu zituen eta horri esker, aurtengo uztaren salmentaren diruarekin etxerako gauzak eta seme-alaben eskola ordaintzea lortu du eta oso pozik dago. Izan ere, lehen artoa soilik landatzen zuten eta horrekin kontsumo propioa soilik zuten. “Babarrunen uzta bildu ostean bizikletan eramaten dut Marrupako merkatura (20km), bertan saltzeko, eta uzta ona izaten jarraitu ezker datorren urtean

motor bat erosi ahal izatea aurreikusten dut” dio pozik. Gaineratu du, berari funtzionatu diola ikusita, bizilagunak ere hasi direla fundazioak gomendatutako nekazal teknikak erabiltzen.

Julieta Triatek 35 urte ditu eta urteak dira Mundukide Fundazioarekin lehen kontaktua izan zuela: “Duela urte pila bat, Beñat Arzadun , koordinatzailea etorri zen eta bera eta fundazioko instruktoreek erakutsitako landa teknikekin hasi ginen lanean. Tipula nola landatu eta ur kanalak eta presak nola egin erakutsi ziguten. Egun, aldian behin fundazioko ikuskaria etortzen da arazoren bat ba ote dugun galdetzera baina orokorrean bakarrik moldatzen gara, oso eskertuta gaude”.

Esker ona orokorra da bertako nekazarien artean, izan ere, askok diote ateratako diruari esker etxean lurzorua ezartzea, mantak erostea, hobeto jatea, bizikleta edo motorra erostea, seme-alaben eskola ordaintzea etab. lortu dutela.

Nekazariak soilik ez, bertako agintariak ere eskerturik daude Mundukideren lanarekin. Mundukideko ordezkariak Mozambikera egin duten bidaian Majune Distrituko Gobernuan izan zirenetan bertako administratzailearekin, Antonio



Guidorekin vilera bat izan zuten bertan. Bileran, Guidok eskerrak eman zizkion Mundukideri, bertako biztanleen bizi baldintzak hobetzen eta herriaren garapenean egin duen lanagatik eta Arzadunen lana azpimarratzeko eta zoriontzeko aprobetxatu zuen. Horretaz gain, elkarlanean jarraitzeko asmoa azaldu zuen eta etorkizunera begira herria hobetzeko dituzten asmoen berri eman zien.

Lan egiteko modua



Mundukidek lursail egokiak bilatzen, landatzeko produktua aukeratzen, nekazaritza teknikak irakasten, merkatu aukerak baloratzen, komertzialekiko tratatzen, uren kanalizazioak eta presak eraikitzen etab. laguntzen die eta hori instruktoreen bidez egiten dute. Behin teknikak ikasi dituzten nekazariak, beste

eremu batera eramaten dituzte, bertako nekazariei irakasteko. Bost hilabete inguruko egonaldia egiten dute ereite garaitik produktuaren bilketara arte eta tarte guzti horretan Mundukide Fundazioak soldata bat ezartzen die. Tijo Aabel instruktoreetako bat da, Cabo Delgado probintziakoa da, 24 urte ditu eta Marrupa distrituko herrixketako nekazariei irakasten ari da. "Gustura egiten dut lan hau, gainontzekoei irakastea gustatzen baitzait eta gainera, beraiek ere oso esker onekoak dira".

Arzadunek nekazariekin egiten dituen bileretan helarazten dien mezua argia da, produktibitatea handitzeko eta produktu bat baino gehiagoren aldeko apustua egiteko. "Gure lana beste GKEenarekin alderatuz gero, lañaren balioa da ezberdin egiten gaituena. Hemen ez dago limosnarik, eta zabaltzen diegun mezuahori da, inork ez diela etorkizuna oparituko, beraiek direla beraien bizitzaren jabe eta aurrera ateratzeko lana egin beharko dutela. Eta ideia hori Mundukide nagusiki finantziatzen duten Arrasateko eta inguruko herrietako kooperatibetatik dator" dio Arzadunek.

Horretaz gain, Mundukide Fundazioak enpresa ikuspegia du eta errentagarria izatea bilatzen du, hau da, inbertitutako diru kopurua baino irabaziak handiagoak izatea; fundazioak inbertituz duen euro bakoitzeko nekazariei lau euroko irabazia ekartzea esaterako.

2018ko kanpainaren datuetan oinarriturik, Mundukidek egindako inbertsioa 673.075 € takoa izan zen eta hauetatik 78.000 € intsumoen hornikuntzarako. Nekazariak lortutako ekoizpenak



berriz, 2.235.000 € ko errenta sortu du Mozambique iparraldean. Honetarako 752 ureztatze sistema eraiki dituzte 618 hektarea ureztatzeko.

Guztira, ekoiztutako 6.350 hektarea erregistratu ditu programak 2018 urtean Niassa eta Cabo Delgado probintzietan. Eta horrezaz gain, nekazaritzarako kultura aberats bat eta tradizio bat sortzen ari da.

Mugikorreko aplikazio berritzailea

Mundukide Fundazioak Niassa eta Cabo Delgado probintzietan egiten du lan eta orotara 600kmko lurrazala hartzen dute bere proiektuek. Lana errazteko mugikorreko aplikazio berritzaile bat sortu berri dute Beñat Arzadun eta bere lantaldeak.

Aplikazio honek GPSa du eta honen bitartez terrenua, neurtu eta argazkiak ateratzen dituzte. Ikuskariak eta idazkariak erabiltzen dute aplikazio hau eta terrenuen neurketak egin eta argazkiak atera ondoren, buelogoko ordenagailuan artxibatzen dituzte. Aurten 1.550 lursail neurtu dituzte aplikazio honekin. Mozambiqueko Gobernuoko nekazaritza ministroaren interesa sortu du aplikazioak dagoeneko.



Mundukideren lan taldea

Mundukide Fundazioak hiru kooperante ditu egun Mozambiken: Xacobo Nogueira Ferreira eta Raul Valdes Martin ingeniari agronomoak batetik eta Beñat Aarzdun Olaizola antolakuntza ingeniaria bestetik.

Horretaz gain, 30-35 langile mozambikar ditu egun Mundukide Fundazioak ikuskari eta idazkarien artean. "Geroz eta Mozambiqueko bertako langile gehiago ditugula lanean fundazioan. Etapa horretan gaude une honetan, jende gazteari fundazioko barne funtzionamendua erakusten diogu eta lanerako trebatzen ditugu, horrela fundazioaren

barne prozedurak hobetuz, lan taldea zabaltzeko eta ahalik eta nekazari gehienengana iristeko” dio Arzadunek.

Reginaldo Da Costa Alegre Da Silva esaterako, Marrupa distrituko idazkaria da. 25 urte ditu eta 2017ko martxoaz geroztik ari da fundazioarentzat lanean. Informatika eta formazio profesional ikastaroak egin zituen Pemba hirian eta egun oso gustura dago idazkari lanetan. “Batez ere bulegoan egoten naiz eta erosketa eta salmenta guztien kontrola eramatea da nire ardura. Logistikaz arduratzen naiz eskaerak egin, guztia apuntatu... Erreza egiten zait lana eta gustukoa dut, almagaren ardura da gehien gustatzen zaidana”.

Ikuskariez eta idazkariez gain, lehen aipatutako instruktoreak gehitu behar zaizkio lan taldeari, zeinak nekazarietara teknikak eta lan egiteko moduak erakustea arduratzen diren aldi baterako langileak diren.

Bestalde, Mundukide Fundazioak Arrasaten duen egoitzako lan taldea gehitu behar zaio, horien artean, Adrian Lamas Montes, Mundukide Fundazioaren Afrikako proiektuen koordinatzailea.

Kooperanteen esperientziak

Beñat Arzadun kooperantea da egun Mozambikeko proiektuen koordinatzailea, hasiera hasieratik dago bertan eta proiektuen eboluzioa eta lorpen guztiak bizitu ditu: “Urte guzti hauetan hemen lana egiteak sortzen dituen sentipenak bi dira, eta gainera egunetik egunera aldatzen dira, batetik pisua eta etsipena, eguneroko miseriarekin elkarbizitzeak eta zoritxarrak bata bestearen atzetik ikusteak dakarrena. Eta bestetik zerbait lortzen ari garenen sentazioa, hau da, aurrera dioala, miseriatik ateratzen ari direla eta bertakoak pozik daudela”.

Xacobo Nogueira Ferreira ingeniari agronomoa da eta 2016ko azaroaz geroztik kooperante lanetan dabil Mozambiken: “Mundukideren inpaktua



hemen izugarria izan da era erakutsi dizkien teknikei esker, bizirauteko nekazaritza gainditu eta komertzializaziorako nekazaritza egitea lortu dute hemengo familia askok". Gaineratu du, hasiera batean "lekuz kanpo eta bakarrik" baina pixkanaka bertako superaziorako gaitasuna ikusita indarrak ematen beraien laguntzen jarraitzeko".

Raul Valdes Martin ere ingeniari agronomoa da, bere lehen aldia da kooperante lanetan eta urtebete darama Mozambiken. Aspalditik zuen buruan kooperante izatearena eta Mundukideren berri izatean proiektuak konbentzitu zuen eta animatu egin zen. Esperientzia gogorra den arren, pozik dago pasua eman izanarekin: "Hemen nola bizi diren, egunerokoari aurre nola egiten dioten, kultura zeharo ezberdin bat, ze ausartak diren ikustea... asko ikasi dut beraiengandik". Bestalde, Mozambike bezalako herrialde batean kooperazioak duen garrantzia azpimarratu du Valdesek: "Egunerokotasunean beraiekin batera elkarlanean *in situ* aritzeari esker gauza asko lortu ditu Mundukidek, egiten duen lana izugarria da". Gaineratu du, esperientzia hau aldaketa handi bat izan dela berarentzat eta pertsona moduan garatzen lagundu diola.



Adrian Lamas Montese, berriz bost urte egin zituen Mozambiken Mundukide Fundazioko kooperante eta egun fundazioak Afrikan dituen proiektuen koordinatzailea da: "Hasiera batean oso gogorra egin zitzaidan. Majune deituriko herri txiki batean bizi nintzen, 1.000-1.500 biztanlekoa, ez zeukan ez ur berorik eta ezta elektrizitaterik ere, eta mugikorrak distrituak soilik funtzionatzen zuten. Askotan oso bakarrik sentitu nintzen eta uztea ere

ponentsatu nuen, oso gaizki ari bainintzen pasatzen. Une gogorak izan ziren baina eutsi nion eta pixkanaka egokitzen joan nintzen. Proiektuak ondo funtzionatzeak eta nekazaria uztarekin ateratako diruarekin pozik ikusteak eta motor bat erosi zuela esatera etortzeak... horrelako gauzak oso garrantzitsuak ziren niretzat eta horri esker pixkanaka ideia aldatzen joan nintzen eta azkenean bost urte geratzeraino. Azkenean esperientzia aberasgarria izan zen, benetan inpaktua duen eta jendearen bizitza aldatzen ari den zerbaitetan lan egitea oso polita baita. Hori izan zen nire motibazioa”.

Neida Vida Lagok, berriz, hiru urte eta zortzi hilabete egin ditu Mundukideko kooperante moduan eta egun geldialdi bat egin du atsedean hartzeko. Momentu zailak eta oso onak egon direla dio, eta urte guzti hauetako esperientzia hitz batean laburtzekotan gaintitza dela hitza dio Vidak. Gaineratu du, esperientzia gogorra izan den arren, berriro errepikatuko lukeela. “Mundukideren lan egiteko moduagatik gustatzen zaidan beste gauza bat luzerako proiektuak izatearena da. Nik esaterako Cabo Delgado probintzian egin dut lan eta fundazioak urteetan bertan egin duen lanari esker, egun familia askok nekazaritzari esker errenta bat ateratzea lortu dute”.

Patronatuko ordezkarien bidaia

Fundazioko Patronatuko ordezkariak bi urtez behin proiektuak bisitatzera bidaia egiten dute eta aurten Mozambikeren txanda izan da. Uztailaren 23tik abuztuaren 4ra egin Mozambique iparraldeko Niassa probintzian dituzten proiektuak bisitatu eta bertako nekazariarekin hitz egiteko aukera izan zuten, Beñat Arzadun kooperanteak gidaturik.



Honako hauek osatu dute Mozambikera Euskal Herritik joan den taldea: Gernikako Maier kooperatibako Eneko Redondo; Aretxabaletako Hiruatx GKEko Oihana Arietaleanizbeaskoa; Arrasateko Harreman GKEko Andoni Uribeetxeberria; Mundukideko boluntarioen arduraduna Mari Luz Tome; Mundukideko komunikazio arduraduna Urri Urizar; Mundukideko Afrikako proiektuen kudeatzailea Adrian Lamas; eta Amaia Zabala Goienako kazetaria.

Andoni Uribeetxeberria Arrasateko Harreman GKEko kidea da, zeinak urteak daramatzen Arrasaten kontzientziarazioa lantzen eta baita Mundukideri diruz laguntzeko ekimenak antolatzen ere. Uribeetxeberria ere Mozambiken izan da fundazioko gainontzeko ordezkariarekin, eta ikusi duen muturreko pobreziaz mintzatu da.



Mundukideren kooperazio sistema eraginkorra dela ere azpimarratu du Uribeetxeberriak eta horretaz gain, Mundukideko kooperanteek hemendik bidalitako diruari ateratzen dioten etekina eta egiten duten lana nabarmendu ditu. Azkenik, Mundukidekoa bezalako bizimodu bateko errealitatea ezagutzearen garrantziaz mintzatu da: Zoragarria izan da Mundukidek Mozambiken diruari ateratzen dion txispa ikustea”.

Mundukideren zabalkundea

Mundukide Fundazioa bere lana herrialde berrietara zabaltzen ari da. “Une honetan, proiektua zabaltze nahian gabiltza, Mozambiken lortutako esperientzia eta ezagutza aprobetxatu eta beste herrialde batzuetan aplikatu nahi dugu. Etapa berri honetan, proiektu berri bat ari gara zabaltzen Etiopian, dagoeneko badugu kooperante berri bat bertan eta datorren urtean, 2020ean Malawin proiektu berri bat irekitzeko asmoa dugu” dio Adrian Lama Mundukidek Afrikan dituen proiektuen koordinatzaileak.

Mundukideren 20.urteurrena

1999. Urtean, kooperatibetan makina bat urtetan lanean aritu eta bailarako GGKEetan parte hartzen zuten hainbat pertsonen bultzatuta, Mondragon Taldeari ideia aurkeztu ondoren, erakundearen babesaren jasota eman zitzaion proiektu berriari hasiera.

Hasieratik, beraz, pertsonen proiektu bat. "Hemengo" eta "hango" pertsonak elkarlanean. Alde batetik, egoera zaugarrian bizi diren pertsonekin garapen sozioekonomiko bidezkoago bat lortzeko helburuarekin. Baina baita, printzipio kooperatiboak biziberritzeko helburuarekin ere, eraldaketa soziala, interkooperazio eta unibertsaltasuna.

Printzipio hauek oinarri hartuta, kooperatiben babesarekin, hasieran boluntarioekin bakarrik eta gero langileekin ere, erakundea hazten joan da. Horrela, 20 urtetan, 10 herrialdeetan lan egin du Mundukidek, 250 pertsona aritu dira zeregin honetan langile eta boluntarioak kontutan hartuta, hegoaldeko 300 elkarte baino gehiagorekin eta 70 euskal kooperatiba baino gehiagoren laguntza jaso du. Elkarlan honen emaitzak, batez ere, hegoaldeko pertsonengan izan du eragina. Izan ere, 2018ko lanak 75.000 pertsonen bizitzetan eragina izan zuen.

Proiektuarekin bat egiteko zer?

Hasieratik proiektuarekin dauden empresa kooperatibo eta pertsona partikularrei esker Mundukidek 20 urte daramatza egoera ahulenean dauden pertsonen gaitasunak indartzen. Pobrezia eta gosea desagerrarazteko, etengabeko prestakuntza sustatuz, emakumeak bereziki ahaldunduz eta kontsumo nahiz produkzio modalitate sostengarriak bultzatuaz.

Norbaitek borondate onez proiekturako dirua ematen duenean, ahalik eta ondoen inbertitzea nahi izaten du eta Mozambikeko programari dagokionez begibistan daude diruarekin lortzen ari diren emaitzak garrantzitsuak direla. Izan ere, Mozambikeko programan gastatzen den euro bakoitzeko 4 €tako etekina ateratzen dio, pobrezia-erresponso handiaren bidez den mozambikar nekazariak.

Aukera ezberdinak daude Mundukiderekin parte hartzeko:

📄 <https://www.mundukide.org/eu/nola-lagundu/diruz-lagundu/> helbidean

📄 www.minutubategunero.com helbidean.

📄 Urriak 20an, Aretxabaletako Urkulu urtegian osapatuko den KLS- lasterketa solidarioan parte hartuaz eta “0 Dorsala” erosiaz.

📄 Gabon inguruan Laboral Kutxarekin batera egiten den kanpainarekin bat eginaz.

📄 Mundukidearekin harremanetan jarriaz: 943 772 010 / mundukide@mundukide.org

Mundukiderekin bat egitea, egin dezakezun elkartasun keinurik handienetariko da. Eta ahal izanez gero, zergatik ez eman pausoa? Eskerrika asko ¡!